

noaua



OSAGAI BERRIEKIN ITZULI DA ERLE EGUNA

Lau urteko etenaldiaren ondoren, sasoi betean bueltatu da Usurbilgo azokarik gozoena / 14

ARGAZKIA: GERTUAGO.EUS



DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azokako agendaren baitan hainbat usurbildar ageri dira / 05



NOAUA

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka igande honetan ospatuko da / 08



UDARREGI

Euskararen Egunari lotutako ekimen ugari iragarri dira / 20




NOAUA

Igandean 'Gu Primer!' antzezlanaren aginagako Eliza Zaharrean / 22

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04



USURBIL

O P T I K A

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa


*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa

DOAN

Entzun
telebista

eta mugikorra
zure audifonoetan



PILARIK
GABEKO

TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

URDAIRA

Sagardotegia

ABENDUAK 16, LARUNBATA

20:00tan BARRIKOTEA!

☎ 943 37 26 91

📍 AGINAGA

*Astelehenak itxita

📱 @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

Zuhaitz erori bat Lasao pareko errepidean

Iñaki Eizagirrek igorri digu aldameneko argazkia. Azaroaren 21ean, Aginagatik Usurbilera zetorren autoan arratsaldeko 15:50ak aldera, eta Lasao parean traba honekin egin zuen topo. Hai-zeteak zuhaitza bota eta N634 errepideko trafikoa baldintzatu zuen. Zorionez, erorketak ez zuen bestelako kalterik eragin.



Aurreko asteko denboralearen ondorioz, zuhaitz bat erori zen N634 errepidera.

Garbigune mugikorra, Txokoaldera

Azaroaren 30etik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 7an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen

Usurbilen ezaguna dugun zarauztar sortzaileak ikusgai izango ditu bere artelan berriak Artzabalen. Datorren urte hasierara arte egongo dira bere lanak bertan eskegita.

"Nekez" izena du Gure Pakea elkartearen egoitzako jatetxean bisita ditzakezuen bere bildumak.

Abenduaren 13an, gaztelaniazko literatura solasaldia

Ana Merino herrikideak gidaturiko gaztelaniazko irakurketa solasaldi berri bat antolatuko du Sutegi udal liburutegiak.

Abenduaren 13an izango da, iluntzeko 19:00etan, liburutegian bertan. Marina Travacioren 'Quebrada' (Las Afueras) liburua aztertuko dute.

1947ko kinto bazkaria abenduaren 17an, ez 19an

1947. urtean jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira abenduaren 17an igandea. Hila-bete falta da baina izen-ematea zabalik da dagoeneko.

Piliri deitu 678 368 980 telefono zenbakira edo Anari bestela, 637 989 414.

Izena emateko epea lehenago itxiko da.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Olibondoak hazten dira oraindik Gazan

Gertakari mingarriak, krimenak behin eta berriz, etenik gabeko zorigaitzak, aire zabaleko espetxe honetan, kaiola abandonatu horretan". Honela hasten du bere poematako bat Ziad Madoukhen palestinarrik; indarkeriarik gabeko erresistentziaren liderra da, nahiz eta bere konpromiso hori gaizki ikusia den Palestinako botere adutensektore tradizional batzuetan. Berak dioenez, indarkeria ezaren militantea izatea lurralde txiki eta abandonatu horretan, gure aurrejuizioak alde batera utzi eta bakearen eta justiziaren alde borrokatzen dutenen gaitasunean sinestera garamatza.

Ez dakit Joxe Arregiren "Argiaren atarian" (Umbrales de luz) web orria ezagutzen duzuen. Oraingoan bere gogoetan oinarritzen naiz nire hausnarketaxoa egiteko. Bi testigutza apartak dakartza. Hain zuzen, bi judutarren iritziak Israelek aurrera daraman basatikeria lotsagarri horri buruz.

Bata Michel Warschawskirena da. Idazlea eta kazetaria da, bakearen aldeko mugimenduarren eta Israelgo ezkerren figura, okupazioaren eta kolonizazioaren aurka konprometitua. "Gerra-krimenetatik haratago joan gara: gizateriaren aurkako krimen baten aurrean gaude Gazan". Bere ustez, Nazioarteko Zigor Auzitegiak esku hartu



ARGAZKIA: CULTURA BELOLEUM

behar luke. Oso kezkatuta dago Israelgo gobernu estremistaren zoramenarekin. Israelek du konponbidearen gakoa: lurralde okupatuetatik erretiratzea. Gazako bimilioi pertsona horiek eskubideak dituzte, existitzeko, arnasa hartzeko.

Bestea Maoz Inonena da. Bere gurasoak 70 urtetik gorakoak ziren. Hamasek su eman zion beren etxeari eta bertan erre zituen urriaren 7an. Hau esan du Maozek: "Negar egiten dut denbora guztian. Egunero egiten dut negar. Baina ez dut negar egiten nire gurasoengatik bakarrik, nahiz eta haur gutxik maite izan dituzten gurasoak nik bezainbeste. Negar egiten dut gerra hau berehala

**MICHEL
WARSCHAWSKI IDAZLE
ISRAELDARRAREN
ESANETAN,
"GIZATERIAREN
AURKAKO KRIMEN
BATEN AURREAN
GAUDE GAZAN"**

gelditu behar delako, odol isurketaren espiralak eta sarraskien gurpilak amaitu behar dutelako". Harrigarriena zera egiten zait: horrelako negargarrikeria jasan ondoren, inongo gorrotorik ez dela nabaritzen bere kontaktetan. Are gehiago: Kontsolatzen duen gauza bakarra da bizi izan ziren bezala hil zirela: elkarrekin. Eta, ziur dakien gauza bakarra omen da ez zutela inoiz mendekurik nahi izango. Bere ustez, Hamas desagerrarazteko modu bakarra "itxaropena ematea da. Itxaropena da daukagun arma eraginkor bakarra". Eta itxaropen horrek ezin du beste oinarririk izan: lurralde eta gizarte partekatuen printzipioa baizik. Eta hori defendatu omen du azken 25 urte hauetan zehar. Batzuek inozo samarra dela esaten diote. Baina bere ustez ez da zentzugabea. Inozoak dira, bere ustez, gerrak zerbait konponduko duela pentsatzen dutenak.

Hausnarketa honen hasieran aipatutako Madoukh palestinarren poemaren zatitxo batekin amaitu nahi dut. Honela dio: "Itxaropenaren sugarrari esker / existitzen da Gaza, / ezohiko pazientziari / eta adore eredugarriari esker. / Gazak bihotza zabalik du / borrokaz, irribarrez, / duintasunez eta itxaropen handiz. / Gaza, zure zoria pertsegituko duzu / oraindik ere hazten ari diren zure olibondoekin".

Oinarritzko lehen sorospen ikastaroa eskainiko du DYAK

Oinarritzko lehen sorospen ikastarora animatzen denak oinarritzko ezagutza batzuk jasoko ditu, "egunerokoan topa ditzakeen arriskuei aurre egin ahal izateko baliogarri egingo zaizkionak: bihotz zein birika susperketa, zauriak, hausturak, erredurak...".

DYAK zabaldu duen oharra-aren arabera, ikastaroa euskaraz izango da eta bi egunez luzatuko da. Abenduaren 2an hasi eta abenduaren 3an amaituko da. Ordutegia hauxe izango da: 09:00etatik 14:00etara. Ikastaroa Usurbilen egingo da, Muna-Lurra, 26 kalean duen egoitzan.

Izen-ematea zabalik

- 943 46 46 22
- www.DYAgipuzkoa.com
- Prezioa: 60 euro.
- Plaza kopurua mugatua.


KzGunea, abenduko ikastaroak

Abenduaren 1etik aurrera goizez zabalduko dute KzGunea, 9:00-13:00 artean:

- Abenduak 1, 09:00-11:00 "Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu".
- Abenduak 4-5, 09:00-11:00 "Argazkiei ukituak eman zure Smartphonearekin".
- Abenduak 11-22, 09:00-11:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiagorako:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net





Abenduaren 6an hasiko da Durangoko Azoka. ARGAZKIA: DURANGOKO AZOKA.

Herri ordezkariarik ez da faltako 58. Durangoko Azokan

Abenduaren 6tik 10era luzatuko da 58. Durangoko Azoka. Hitzordu eskaintza zabalean, hainbat usurbildar ageri dira.

Aurtengo edizioan 265 ekitaldi eta 950 nobedade iragarri ditu antolakuntzak; "689 liburu, 179 disko edo musika produktua, 44 aldizkari, eta beste-lako 40 ekoizpen ere bai. Esanguratsua da musika produktuen hazkundera, iaz baino 38 ale gehiago izango direlako. Nobedadeen harira, aipagarria da komikiek eta ilustrazioek hartu duten indarra. Berrikuntza lez, marrazkilarien lana zuzenean erakutsiko da pantailen bidez". Egitarau osoa eta nobedadeen berri durangokoazoka.eus atarian jaso ahalko duzue.

Albiste hau lerrootara daskarkigu halere, bertan iragarri duten ekitaldi eskaintza zabal horretan, urtero moduan herri ordezkariarik ez delako faltako. Haien lan berriak aurkezten izango dira aurtengoan, Yolanda Arrieta Malaxetebarrria, Jakoba Errekondo, Pello Zubiria aginagarria, Rukula musika taldea eta Joseba Larratxe.

Durangoko Azoka Abenduak 8, ostirala

• 16:00-16:30 Saguanbara-Elkartegian: 'Mari Gonagorri eta hamazazpi berri' Yolanda

Arrieta Malaxetebarrriaren Denonartean argitaletxeak plazaraturiko liburu aurkezpena.

• 16:30-17:00 Talaia-Landakogunean: '2024ko ilargiaren egutegia' aurkeztuko du Jakoba Errekondok (Argia). Zehaztasunak: "Ilargiak landarengan eta beste hainbat esparruetan duen eragina azalduko du Jakoba Errekondok. Ilargiaren Egutegia aurkeztuko du".

Abenduak 9, larunbata

• 12:00-13:00 Talaia-Durangoko Museoa: 'Geuretik Sortuak: interakzioetik fikziora.

RUKULA TALDEAK 'TRAGANARRU' DISKOA AURKEZTUKO DU ABENDUAREN 9AN AHOTSENEAN

Geure herrien eta sortzaileen arteko interakzioetik sortutako kontakizunak' egitasmoaren aurkezpena. Sorkuntza lanon artean, hemen uda partean eginiko egonalditik Iñaki Martiarena "Mattin"-ek Usurbilen giroturiko dago.

• 17:30-18:00 Talaia-Landakogunean: '2024ko ilargia eta landareak: urteko lanen agenda' aurkeztuko du Jakoba Errekondok (Argia).

• 18:00-18:30 Talaia-Landakogunean: Pello Zubiriaren 'Planeta prekarioan. XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak' (Argia) liburuaren aurkezpena.

• 19:10-19:40 Ahotsenea Musika-Plateruenan: Rukularen 'Traganarru' lan berriaren aurkezpen-kontzertua. Rock talde instrumentalaren estudioko hirugarren lana Andoaingo Studios Garaten grabatua da, Martxel Arkarazo taldeko baxu-jotzaile eta soinu-teknikariaren aginduetara. "Bertan, etiketa bakar batean sailkatzinak diren zortzi abesti sartu dira. Rukula zuzenekoetan lehertzeko prest dagoen banda bat da!".

Abenduak 10, igandea

• 12:00-13:00 Talaia-Landakogunean mahaingurua: "Euskadi Sariak-Irakurketa eta gazteak. Patxi Zubizarreta, Joseba Larratxe eta Miren Billelabeitia". 2023an saritutako liburuak abiapuntu hariturik, gazte literaturaren mugak aztertu eta gazteak irakurtzera nola bultzatu aztertuko da.

Informazio gehiago

durangokoazoka.eus atarian.





Talo eta txistor jana antolatuta dute Aginagan.

Gabonen atariko hainbat ekitaldi iragarri dira

Ate joka ditugun eguberrien atarian, hainbat ekitaldi antolatuta dira Santuenean, Aginagan eta kaxkoan

Abenduak 16, larunbata Azoka Santuenean

- 16:00 Gabonetako azoka txikia eta bazar solidarioa Santueneako jubilatuen tabernaren eta auzo elkarteko egoitzaren atarian: auzoko nahiz herriko artisauen eskulanak salgai, gaztainak, parrilla...
- Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

Abenduak 16, larunbata Talo eta txistor jana Aginagan

- 18:00 Talo eta txistor jana Aginagako Eliza Zaharrean. "Bakoitzak bere taloa egiten ikasteko aukera izango du eta ondoren talo-jana".
- Antolatzailea: Antxomolan-txa elkarte.

Abenduak 17, igandea San Tomas azoka Usurbilen

- Goizean zehar, Usurbilgo frontoian: San Tomas Azoka. Azokako babarrun zein sagardo lehiaketan parte hartzeko asmoa dutenek NOAUA!ko bulegora etorri beharko dute. Abenduaren 11tik 13ra, ordu-tegi honetan: 8:00-13:00 / 16:30-18:30.

Babarrunaren kasuan, parte hartzaile bakoitzak kg1 babarrun aurkeztu behar du eta trukean 12 euro jasoko ditu.

Sagardogileen kasuan, parte hartzaile bakoitzak 8 botila aurkeztu beharko ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro pagatuko zaio.

- Antolatzailea: NOAUA!

Helduentzako solasaldi filosofikoa

Usurbil udalerrigisa kide duen Oinherri Herri Hezitzaileen Elkartetik eta Jakinmin elkartetik helduentzako solasaldi filosofikoa antolatuta abenduaren 14an 18:00etan Sute-giko erakustaretoan. Gehienez 15 laguntzako lekua egongo da, Garazi Aizpuruak bideratuko duen saioan. Izena aurrez doan eman ahalko da usurbilkultura.eus platafor-

maren bidez. Gogoan izan, galdera baten bueltan iritziak trukatzeko, inor epaitu gabe filosofatzea da helburua. Hausnarketarako gune askea sustatzen da egitasmo honen bidez. Aurrez egin dituzte saioak iazko ikasturtetik haurrekin baita helduekin ere. Arrakasta ikusita, helduen saioa iragarri dute hilaren 14rako.

"Trantsizio ekosoziala" misioa elkarlanean definitzeko prozesua

Misioen araberako lan jarduna ezarri du Usurbilgo Udalak aurrera begira. Urria amaieran aurkeztu zituen misioetako bat, "trantsizio ekosoziala" deiturikoa herriarekin, herri eragile nahiz norbana-koekin batera definitu nahi du udal gobernu taldeak, eta horretarako hiru lan saio iragarri ditu. Lehenengoa, aben-

duaren 14an arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Prozesu honen bidez, "elkarrekin misio bat adostu eta hori lortzeko helburuak finkatu nahi dituzte". Bertan parte hartzera deituak daude izaera desberdineko eragileak; sektore publiko, pribatu nahiz komunitarioko eragileak zein herritarrek.

Hamabost langabetu gehiago urrian

Gehitu egin zen langabetu kopurua urrian, bai Usurbilen, baita Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere. Udalerrigisa honetatik hasita, hilabete hartan lanik gabeko 210 herrikide zeudela ohartarazi du Estatu-ko Enplegu Zerbitzuak, irailean baino 15 gehiago, orduko hartan 195 ziren.

Usurbilgo datuetan erreparatuta, bereziki gizonen artean hazi zen gehien langabetu kopurua urteko hamar-

garren hilabetean. Irailean 79 langabetu gizonen zeuden, hogei gehiago, 91 urrian. Emakumezkoen artean pittin bat gehitu zen baita; 116 langabetu irailean, 119 urrian.

Oraingo honetan (ez da ohikoa izaten), gizonen artean baino (103) emakumezko gehiago (108) kontratatuta zizuten. Guztira, 273 kontratu erregistratu zizuten urrian Usurbilen, gehienak, 211, aldi baterako.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrena 1, 1c Usurbil

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



Gure Zirkuakoak Urbilgo aparkalekuan egon dira hiru astez. Azken egunean argazki hau atera zuten. ARGAZKIA: GURE ZIRKUA.

"Ederra joan da Usurbilgo egonaldia"

Gure Zirkuak azaroaren 19an amaitu zuen hiru asteko egonaldia Usurbilen. Pozarren agurtu zuten seigarren bira.

Usurbil hautatu zuen Gure Zirkuak aurtengo bira arrakastatsua agurtzeko. Azaroaren 3an hasi eta 18ra arte hamabi emanaldi programatu zituzten hasieran.

Harrera ezinhobea izan eta ziklo horri beste bi emanaldi

eranstea erabaki zuten azaroaren 19an. Emanaldi gehienetarako sarrerak eskuragarri jarri orduko, bizi asko agortzen joan ziren. Ikuskizunak go-raino bete zituzten, baina ezer ez da betiko izaten eta Gure Zirkuak bere seigarren den-

boraldiko bira agurtu zuen Urbil merkatal guneko aparkalekuan, taldeak atera eta albiste honi atxikia duzuen argazkiarekin.

Gabonetan 10 emanaldi eskainiko dituzte Tolosan

"Ederra joan da egonaldia!", adierazi dute, Gure Zirkura joandakoak eskertzearekin batera. Agurtu dute seigarren bira, baina adi, "oraingoz!", ez behin betiko alegia. Iragarri dutenez, "gabonetan, Tolosan!" izango dira. Abenduaren 26tikurtarrilaren 4ra hamar emanaldi programatu dituzte. Sarrerak gurezirkua.eus atarian izango dituzue salgai.

"Pause" Usurbilen grabatutako laburmetraiaren aurkezpena

"Emakume bat, orain arte normaltzat jo zituen jarrerak aztertzen hasten da. Konturatzen den arte non dauden jarrera horien erroak, bere buruan ikusten dituen jarrera sexista horiekin pixkanaka biluztea lortu arte. Laura 30 urteko neska formatu eta moderno bat da. Berak jakin gabe, bere egunerokotasunean gertatzen diren mikromatxismoak ontzat ematen ditu, bera hazi eta hezi den gizartean zeharo enbortuta daudenak. Bere egunerokotasunean 'feminaziek' molestatu egiten dute, manifestazioak ez dira erosoak. Fikzio baten barruan bizi izanaz konturatzen den arte. Fikzio baten barruan bizi dela konturatzen denean, emakume batek ustekabeko bidea hartuko du".

Hala dio 'Pause' laburmetraiaren sinopsiak. Usurbilen grabatua izan den hamazazpi minutuko ikus-entzunezko lan hau ezagutzeko aukera izango dugu abenduaren 17an 18:00etan Sutegin. Proiekzioaz gain, bertan izango diren filmeko zuzendari Enara Tejada-sekin eta Amaya Quiroga aktorearekin solasaldia izateko aukera egongo da. Ez hori bakarrik. Performancea iragarri dute, Tejadas beraren (koreografia) eta Izaskun Lapaza dantzariaren eskutik. Hitzordu berean, gainera, "zine-dantza" iragarri dute: hamar minutuko "Emakhari" eskainiko dute, Iurre Aranburu zuzendariarekin. Ekitaldirako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dira doan.

Errigorako zozketan saritutakoak

NOAUA!ko bazkide direnek abantaila ezberdinak dituzte: antolatzen ditugun ekitaldietan sarrera merkeagoak eskura ditzakete eta antolatzen ditugun zozketetan parte hartzeko aukera dute, besteak beste. Hauek izan dira Errigorako saskien zozketan sarituta izan diren bi bazkideak.



Idoia Agirre eta Juan Mari Udabe, saskiak eskuratu berritan.



URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
IT-ak egiten dira
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARANKA BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL



Hurbilagok iaz antolatutako Udazkeneko Azoka. NOAUA!

Herri merkataritza, plazara

Dendako erakusleihoa plazara atera eta saltzaile zein erosleak elkartzeko Udazkeneko Azoka antolatu du Hurbilago Usurbilgo merkatarien eta ostalarien elkarteak igande honetarako, abenduaren 3rako frontoian.

Plaza herri merkataritzaren erakusleihoa izatea nahi dute igande honetan, abenduaren 3rako Hurbilago elkarteak antolaturiko Udazkeneko Azokarekin. Duten eskaintza eza-gutarazi nahi dute, gugandik gertuen egoten diren dendariongana gerturatu, harreman-du, galdetu, ikusi, erosi. 17 bat postu kokatuko dituzte Usurbilgo frontoian. Jan-edanak eta ekintza gehiagok osatuko dute goiz eta eguerdi parteko eskaintza.

Hirugarren urtez segidan egingo da Udazkeneko Azoka eta bertan postua jarriko dutenen artean dira Gipuzkoako beste txoko batzuetatik etorritako artisau eta komertzioekin batera, Usurbilgo ordezkariak ere; aurtengoan, Ione Iruretagoiena moda diseinatzailea eta Lizardi liburu-dendak,

Arropa eta literatura nahiz aisialdiko hainbat produktu erakargarriekin hornituko dituzte haien postuak. Etxebeste kaleko saltokian izan da NOAUA! eta Lizarditik iragarri dutenez, "nobedade asko ditugu bai haurrentzat zein gazte eta helduentzat" eta, gaineratu dutenez, "eskaintza hori guztia bistaratu nahi dugu". Eguneroko dendako erakusleihoa fisikoa plazaratu nahi dute, opariak masiboki erosteko ohitura dagoen urte amaiera honetan. "Opariak erosteko unea da. Usurbilgo dendetara joateko eskatzen dugu".

Lehenbizi herrian eskatu
Orohar azken urteotan barneratu den ohitura irauli nahi dute eta horretarako baliatu nahi dute abenduaren 3ko

azoka. "Batzuetan saltoki handietara doaz eta han nahi edo behar duten zerbait aurkitzen ez dutenean gugana etortzen dira. Baina alderantziz egin beharko litzateke. Lehenbizi etorri herriko dendetara, galdetu eaproduktu hori badugun. Une horretan salgai ez badugu, eskatu eta ekar dezakegu", gogorarazi digute Lizarditik.

Penaz bizi dute herrian azkenaldiko saltokien itxiera eta zertan ari garen hausnartzeko proposa izango da baita Udazkeneko Azoka. Hamazazpi postutik bi izango dira herri-

**"BEZEROEKIKO
HARREMANA OSO
GARRANTZITSUA
DA"**

koak, hauei batu behar zaizkie azokan bertan egongo liratekeenak baina duten eskaintza frontoian erakustea ezinezkoa zaien herriko hainbat denda. Halere, herrian komertzioen egoera zein den ere islatuko du Hurbilagoren ekimen honek. Lizarditik gogorarazi digute, "jendeak begiratu behar du herrian zer dugun, zer eskaintza dugun". Eta baita, bide batez, zer ari garen galtzen ere. Horregatik, hortxe jendeari egin dioten gonbita. "Jendeari eskatzen diogu azokara joateko, ikusteko zer dagoen eta posible bada erosi, eta hala ez bada, behintzat, ikusteko zer dugun. Gero dendetara joan eta erosi daiteke", Etxebeste kaleko liburu-dendatik gogorarazi dutenez.

Tratua ere hurbilagokoa

Dagoena ikustea, erakusleihoa izango da Udazkeneko Azoka, baina hortik haratago doa ekimen hau. Izan ere, herri merkataritzaren topagunea ere izango da lerrootan mintzagai dugun hitzordua, bezero eta dendarien arteko elkar ezagutza bultzatu eta hartueman estutzeko une aparta. "Denda txikiak ez dira saltoki handien antzekoak. Saltoki txikiotan bezeroarekin dugun gertuko hartueman oso garrantzitsua da". Konfiantza eta hurbileko tratua ari dira Lizardikoak eta egunerokoan dendan sustatzen duten salerosketa eredu hau plazaratzeko baliatu nahi dute baita abenduaren 3ko azoka. Lehen ediziotik parte hartu izan dute eta oraingo honetan ere bat egin dute Hurbilagoren deialdiarekin. "Gu gustura ateratzen gara. Jendeak ikus dezala hemen gaudela". "Hemen gaudela" diotenean, honakoa nabarmendu nahi dute; ez dira bakarrik euren saltokiaz ari, baita egunerokoan herri merkataritzari eusten gogotik lan egin arren, azokan egon ezingo duten gainerako dendengatik ere.



laz bezala, aurtengo Udazkeneko Azoka ere herri merkataritzaren erakusleihoa izango da. NOAUA!

650 Usurbil Bizi otarra aurkeztuko dute azokan

Dendari txikien erakusleihoa izango den igandeko Udazkeneko Azokan 650 Usurbil Bizi otarra aurkeztuko dute.

Hamazazpi postu, jan-edana, haurrentzako eskaintza, tokiko ekoizpena islatzen duen 650 Usurbil Bizi otarraren aurkezpena... Udazkeneko Azoka girotua izango dugu igande honetan, abenduaren 3an, Hurbilago elkartearen eskutik.

Askotariko eskaintza plaza-raturako diguten dendari txikiengana gerturatu, erosketatxoak egin eta goizpasa ederra egiteko aukera izango da. Hirugarren urtez antolatuta du ekimen hau herriko merkatarien eta ostalarien elkarteak.

Otarraren aurkezpena

Gogoan izango duzue, azaroa hasieran 650 Usurbil Bizi otarra tokiko produktuez hornitzera deitu zitzairen herriko ekoizleei; batetik, kultura eta sormen industriari aritzen direnei, bestetik, lehen sektorean, ostalaritzan nahiz elikaduraren industriari jarduten dutenei. Dagoeneko osatuta duden produktuen bilduma igandeko Hurbilagoren Udazkeneko Azokan aurkeztuko dute.

rean, ostalaritzan nahiz elikaduraren industriari jarduten dutenei. Dagoeneko osatuta duden produktuen bilduma igandeko Hurbilagoren Udazkeneko Azokan aurkeztuko dute.

Zozketara bidean

Hortik aurrera, adi; iaz egin zuten moduan, abenduaren 4tik hilabete osoan zehar, Hurbilagoren saltokietan egindako erosketen truke, otarhauen zozketan parte hartzeko txartela irabaziko duzue. Zozketa abenduaren 30ean egingo dute, eta biharamunean, hilaren 31n ekitaldi baten bidez banatuko dituzte. Zorte on!

Hurbilago San Silbestre

Egun berean, gainera, 2023ko azkeneko igande horretan, Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa ospatuko da. Hi-

tzordu honek ere lerrootan aipagai dugun sektoreekin lotura zuzena du. Izan ere, Usurbilgo merkataria eta ostalariak biltzen dituen Hurbilagok antolatzen du ekimen hau, tokiko komertzio eta ostalaritza establezimenduen alde. Ibilbidea ere halakoxea du; bitan ematen zaio itzulia Usurbilgo sektore honetako jarduerak biltzen dituen eremu nagusiari. Lasterketarako ize-na aurrez bideratzeko aukera egongo da gertuago.eus atarian.

Deskontuetarako bonuak

Hurbilagok iragarriak dituen deialdi hauez gain, gogoan izan baita; abenduaren 2ra arte indarrean segiko du "ordaindu 20 eta eskuratu 30" deskontu-kanpainak. Aldarriak dioen moduan, 20 euroko bonuak eskuragarri jarri ditu Hurbilagok. 20 euro ordainduta, 30 euroko erosketa egin ahalko da. Bezero bakoitzak hiru bonu eskuratzeko auke-

AZKEN TXANPAN DA, HURBILAGOREN DESKONTU-KANPAINA

ra izango du. Elkarte honetako kide diren saltokietan 30 eurora arteko deskontua aplikatzeko aukera izango da. Bonuak gertuago.eus atarian eskuratu ahalko dituzue.

Hurbilagoren deialdiak Abenduak 3, igandea Udazkeneko Azoka Usurbilgo frontoian:

11:30-14:30 Azoka: Lizardi liburudenda, Ione Iruretagoiena, Ama eta biok, Amesgile Argitaletxea, Bihurri, Ciaobellaido, Crea, Garoa Elkartea, Gigil Design, Izan Inurri, Jukima, Knot, Koloreztatu, Kool Studio, Ni Naiz, Osabi, Pott Keramika, Tilin talan, Urluma. **11:30-14:30** Pultsera tailerra, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.

12:00 Ipuin kontaketa, Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa.

13:00 650 Usurbil Bizi Usurbilgo ekoizleen produktuekin osatutako gabonetako otarraren aurkezpena.

Goizean zehar, gaztainak eta sagardoa doan (azokan erosketa bat eginda).

Abenduak 4-30

650 Usurbil Bizi otarra eskuratzeko zozketan parte hartzeko aukera. Hurbilagoren saltokietan erosketak egitearen truke zozketarako txartelak banatuko dituzte.

Abenduak 30, larunbata

Egitasmo honetan parte hartuko duten herriko establezimendu bakoitzeko bezeroen artean sarituak nortzuk diren erabakitzeke zozketak egingo dira.

Abenduak 31, igandea

Eguerdian, 650 Usurbil Bizi otarren banaketa ekitaldia Usurbilgo frontoian.

17:00 Hurbilago San Silbestre herri lasterketa.

Antolatzailea: Hurbilago, Usurbilgo merkatarien eta ostalarien elkarteak.

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Eusko Jaurlaritza.



Ander Izagirre idazlearekin solasaldia egin zuten azaroaren 21ean. NOAUA!



Sutegin eginiko helduen antzerki topaketen irudia. NOAUA!



Zumartekoan Musikaean ekimeneko kalejirako argazkia. NOAUA!



Musikaean-eko kontzertua Julen Lejardi Araolazari eskaini zioten. NOAUA!



Geltoki berriko lanak egungo trenbidean aldaketak eragiten ari dira. NOAUA!



"Konponbiderako Giltzak" manifestuarekin bat egitea eskatu du Sarek. NOAUA!



Azaroaren 25eko elkarretaratzea deitu zuten Kafe Tertuliak. NOAUA!



Kantu Taldeak ere bat egin zuten azaroaren 25eko mobilizazioarekin. NOAUA!



Zuberoako ikastolen 50. urtemuga festa. Harrera ekitaldia Udarregin. NOAUA!



Xiberuko ordezkartzari harrera ekitaldian egindako oparia. NOAUA!



Usurbildarrak eta xiberotarrak kantu-jiran. NOAUA!



Kantuan bat egin zuten xiberotar eta usurbildarrek asteburuko festan. NOAUA!



Zuberoako ikastolen aldeko festako irudi gehiago noaua.eus atarian. NOAUA!



Xiberotarren emanaldiak borobildu zuen azaroaren 25eko festa Sutegin. NOAUA!



Orbeldikoak xiberotarrekin dantzan Sutegin, azaroaren 25eko jaialdian. NOAUA!



Udarregi ikastolako ikasleak kantari aritu ziren Xiberoko ikastolen alde. NOAUA!

25 urte, euskarazko aisialdian eragiten

Mende laurdena euskarazko sorkuntzaren erakusleihu lana egiten, aisialdi tarte euskalduntzen. Konturatzeko, hogeitabosgarrena labetik atera berri dute, “zizt eta zazit!” aldarripean. Kalean da jada Euskarazko Produktuen Katalogo berria, 8.000 sorkuntza lanen erreferentziekin.

Ohi bezala 0-16 urte artekoentzako jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, APP-ak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak, denetarik aurkituko duzue, Hego Euskal Herriko ehunetik gora udal eta mankomunitateak, tartean Buruntzaldeako udaletako euskara zerbitzuak lankidetzan jartzen dituen egitasmo honen paperezko edizioan. 64.000 ale banatuko dira aurten Hego Euskal Herri osoan; besteak beste, eskualde honetan, Andoainen, Astigarragan, Heranin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen.

Urtean behin kaleratzen duten paperezko euskarri honez gain, gogoan izan, noiznahi kontsulta dezakezue eskaintza osoa katalogoa.eus atarian eta berrikuntza hauen jarraipena ere egin dezakezue, aipatu



Euskarazko Produktuen Katalogo berriaren 64.000 ale banatuko dira aurten Hego Euskal Herri osoan. ARGAZKIA: DURANGOKO AZOKA.

webgunean buletin elektronikora doan harpidetzea erabakitzen baduzue. Ikusi soilik ez, produktuok erosteko zubilana egiten dute webgune horren eta argitaletxeen artean. Paperezko euskarri bezala, edizio elektronikoa ere 0-12 eta 12-

16 urte artekoei zuzenduriko eskaintza berezitu dute. Aurtengoan, “biek ere itxura berriak estreinatu dituzte”, azaldu dute sustatzaileek.

Batean zein bestean, “atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoi-

tzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, erabiltzaileak produktuen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko manera izango du ‘non eskuratu’ botoian klikatuta”.

Nabarmen hazi da bisita kopurua

Maiz eguneratzen dute euskarazko produktuon ataria, “argitaratzen diren produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz eta, finean, katalogoa.eus bizi-bizirik dago”. Nabarmenezkoa da, iaztik hona webguneak izan duen bisita kopuruaren hazkuntza. Iaz 334 erabiltzaile sartu ziren bertan, 5.372 ikustaldi zenbatu zituzte, gehienak, ia mila, liburuen atalean. Aurten, izugarri hazi da bisitaldi kopurua. Sustatzaileek helarazitako datuen arabera, 3.146 erabiltzaile eta 40.793 ikustaldi izan ditu katalogoa.eus atariak. Kasu honetan, berdinketa eman da bisitatuenak diren bi atalen artean; liburuenean, 6.801 bisita zenbatu dituzte, 6.665 jostailu eta jokoaren atalean.

Auzolanari segida emateko deia

Mende laurdena igarota, beste hainbeste urteko ibilbidea izateko motibaziorik ez dela falta dio Osiok. Katalogoa, bere esanetan, “osasuntsu dago eta oraindik ere beharrezkoa izaten segitzen du. Presentzia fisikoa garrantzitsua da ikusi eta baita erreferentzia bat izateko ere”. Horren garrantzia are gehiago nabarmenduko lukeen proposamen bat ere egin digu. “Ongi legoke norbaitek orain arte

kaleraturiko katalogo guztiak hartu eta horien jarraipena egitea. Hor ikusiko genuke urte hauetan zer nolako garapena izan duen” bai paperezko euskarriak berak baita argitalpen honetan agertu diren sorkuntza lanek, haien egileek edota argitaletxeek ere.

Zer nolako lankidetzan izan den ere agerian utziko luke behaketa lan honek Asiainen esanetan. “Hasieran askoz gehiago kostatzen zen, baina

poliki-poliki garatu izan da eta eskertzekoa eta ezinbestekoa izan da, behar bezalako lana egiteko”. Berarentzat urteotako esperientzia opari gisa definitzen du. “Haur eta gazteen literatura mundu ikaragarria da. Gela batean sartu, bertan hamaika ate daudela ikusi eta ate bakoitzak beste toki batera eramaten zaitu, oso aberatsa da”, eta aberasgarritzat jo du baita ere alor honetan dihardutenekin harremandu ahal izatea.

Ildo horretan, mende laurden honen zutabe nagusietako bat izan den auzolanari segida emateko deia egin du lerroon bidez. “Euskal Herriaren eta haur eta gazte literaturaren indargune handienetako bat da elkarlana. Segi dezagun lan hori zaintzen eta zuzentzen”. Katalogoak ere orain arteko nortasunari eustea nahiko luke. “Erreferentziak erakusleihoa izan eta eskuragarri izatea” nahi luke beste 25 urtez.

→ Aipatzekoa baita, haur eta gazteei zuzenduriko eskaintzetan orohar izan den ikustaldi eta erabiltzaile kopuruaren hazkuntza. Gaztetxoenen artean, ia 203 erabiltzaile eta 395 ikustaldi erregistratu zituzten. Amaitzeko dagoen urte honetan, 2.275 erabiltzaile eta 4.209 ikustaldi. Gazteen kasuan, 918 erabiltzaile eta 1.842 ikustaldi zenbatu dituzte.

Lerrootan adierazi bezala, sarean eskaintza osoa kontsultatu ahalko duzue, haren lagin bat 25 urte bete dituen paperezko edizioan. Horretarako, noski, ezinbestekoa da alde aurretik aukeraketa lan bat egitea, nahi bai baina ezin bilduma osoan eskuorrian sartu. Zereginotan aritzen dihardu Andoni Imazek. “Badok atarian argitaratzen diren diskoak sartzen saiatzen naiz, mota askotakoak”, adierazi digu. Ez da zeregin erraza izaten. “Zailagoa izaten da niretzat haurrentzako musikara iristea zuzenean, horiek gertuen ditudan zirkuitatik kanpo egoten direlako, nolabait esateko. Orain lana pilatzen da arlo guztietan, argitalpen kopurua asko hazten delako Durangoko Azokarako”, gaineratu du Imazek. Halere, azoka, informazio iturri ezin emankorragoa dela dio. “Edozein datu biltzeko, azoka bera ere oso toki aproposa izaten da, urteko berrietasunak modu antolatuta eta sistematizatu batean lortzeko aukera apurretako bat, argitaletxeen jarduru-



“Paperezko euskarrian bezala, edizio elektronikoa ere 0-12 eta 12-16 urte artekoek zuzenduriko eskaintza berezitua dute”.

netik kanpo ere iristen den argazki osatu antzeko bat”, azaldu digu. Horrekin batera, euskal musikaren atari den badok.eus webguneak ere “baditu argazkia etengabe osatzen aritzeko sareak”.

Kalitatea lehenetasun

Liburuen atalean, bestalde, hautaketa lanetan dihardu Migelanjel Asiain “Osio”-k. Lehen urteetan argitaratzen zen edukian “bazen nolabaiteko desoreka” eta zeregin hau “pertsona neutroago” batek egitea egokiagoztat jo zutela azaldu digu. Zeregin

honetan dabilenetik, urtean zehar plazaratzen diren sorkuntza lanen jarraipena egiten du, gero hautaketa bideratu ahal izateko. Argi dio, plazaraturiko literatura lanen “kalitatea” dela lehenesten duen irizpidea. Horren ostean, sorkuntza egitasmo hauek “Euskal Herrian argitaratuak izatea. Gero, argitaletxeen arteko oreka bermatzen saiatzen naiz”. Horrez gain, kontuan izan; 0-12 eta 12-16 urte artekoentzako eskaintza bereizten du Katalogoak. Horregatik ere, “ikus behar da urte bakoitzeko ekoizpen hori

**LITERATURA LANEN
AUKERAKETAN,
"KALITATEA DA
LEHENESTEN DEN
IRIZPIDEA"**

**"ONLINE EDIZIOAK
AUKERA ASKO
EMATEN DITU
BILAKETAK
EGITEKO"**

nola banatu den adin tarte ezberdinen arabera”.

Erabaki beharra

Hautaketa lan batek ezinbestean dakar, noski, nahi bai baina paperezko euskarrian dena sartu ezina. “Kasu gutxitan gertatu zait liburu bat edo beste kanpoan utzi beharra. Esaterako, hoge argitalpen izan eta hamabi hautatu beharra derrigorrez. Amorruta ematen du zortzi lan alboratu beharra liburu onak direla eta Katalogoan egotea merezia dutela uste izan arren. Baina lan honek bere baitan darama hori”, azaldu digu Osio.

Paperezko edizioa eta edizio elektronikoa, elkarren osagarri

25 urte bete ditu asteotan eskuratzeko aukera izango duen Katalogoak. Mende laurdena igarota, “bere funtzioa oso ongi betetzen du, zabalpen handia du” nabarmendu du Osio eta katalogoa.eus atarian eskaintza osoa aurkitu ahalko dugun arren, gaineratu digunez, “agian momentuz online bidez ailegatzen ez den tokietara iristen da paperezko edizioa”. Horregatik dio, bata zein bestea “elkarren osagarriak dira”. Edizio elektronikoa hain zuzen, “oso baliagarria dela” dio. “Aukera aunitz ematen ditu; adinaren edo egilearen arabera bilaketak egiteko esaterako. Paperekoak bete ezin duen hutsunea osatzen du”.



Gozotik, osagai berriekin itzuli da Erle Eguna

Lau urteko etenaldiaren ostean, sasoi betean itzuli da 22. Erle Eguna, osagai gozo berriekin, gainera.

Itxuraz berrituta baina gozotasunik galdu gabe itzuli da azkenekoz 2019an ospatu zen Erle Eguna. Azaroaren 26an egin zion lekua herri honek berrikuntzekin; espazioaren antolaketa aldatu eta epai-mahaiak erdigunean jarri zituen. Erlea ardatz zuten terapien berri jasotzeko aukera izan zen Potxoenean. Hutsik egin ez zuten azoka gozo askoan joan etorri ugariak izan ziren. Erle Eguna marrazki, gozogintza eta Euskal Herriko Ezti Txapelketen sari banaketarekin borobildu zuten. Honatx sarituen zerrenda:

Euskal Herriko 22.

Ezti Txapelketa:

Mila lore

- 1-Iñaki Altzuri (Donostia).
- 2-Patxi Franco Caballeiro (Andoain).

Ezti argia

- 1-Aitor Barandiaran Arrieta (Andoain).
- 2-Juan Galdeano Izagirre (Hernani).

Ezti iluna

- 1-Felix Zabarte (Elorrio).
- 2-Beñat Elortza (Zerain).



Bilominaren prozesua zuzenean azaldu zuten. NOAUA!

Marrazki lehiaketa:

- HH 2-3: Ur Salsamendi.
- HH4: Paula Calvo Lasasoa.
- HH5: Kattin Gartzia Goia.
- LH1: Mikel Garcia.
- LH 2: Mara Astiazaran.
- LH 3: Nora Izquierdo.

LH 4: Auritz.

LH 5: Ibai Murua.

LH 6: Martin Otaduy Sagarna.

Gozogintza lehiaketa:

- 1-Udarregi ikastolako ikasleak.
- 2-Kandy Tolosa (Andoain).



Euskal Herriko Ezti Txapelketako sarituak. NOAUA!



Gozotasuna zerien 22. Erle Eguneko azokako postuei. NOAUA!



Joan etorriak ugaritu ziren Erle Eguneko eguerdi partean. NOAUA!



Udarregiko ikasleen postuak irabazi zuten gozogintzako lehiaketa. NOAUA!



Erleak ekarri zituen ezti lehiaketako sariak. NOAUA!



Jakinmina piztu zuen 22. Erle Eguneko sari banaketak. NOAUA!



Epaimahaia gogotik lanean, ezti poto onenak hautatzen. NOAUA!



Marrazki lehiaketan sarituetako batzuk. NOAUA!



Gozogintza lehiaketako txapeldunak. NOAUA!



Trena Txokoalden geratzeko sinadurak biltzen aritu ziren Erle Egunean. NOAUA!



Erlea ardatz duten terapietara lekua egin zieten Potxoenean. NOAUA!



Aurpegi ezaguneko epaimahaia ezti dastaketan. NOAUA!



"Gu Primer" antzezlano hiru protagonistak: Inazio Tolosa, Nerea Gorriti eta Ramon Agirre. ARGAZKIA: XENTIMORIK GABE

"Euskararen tripetatik idatzitakoek ez dute itzulpenik"

RAMON AGIRRE AKTOREA

"Gu Primer" antzezlana eskainiko du Xentimorik Gabe taldeak abenduaren 3an 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak usurbilkultura.eus-en edo Arraten eskuratu ahalko dituzue.

Ilargirainoko bidaia hau antolatzeko ideia nondik sortu zuen Xentimorik Gabe konpainiak?

Ramon Agirre: Inazio Tolosa eta biontzat laugarren lana da elkarrekin egiten duguna formatu berean. Musikal txiki bat izaten da guk egiten duguna. Oraingo abentura honetan, mundu osoan sekretu bat zabaltzera goaz. Jendeak ez dakien zerbait gara; bi euskaldun izan ginela ilargira iristen lehenak, Inazio Tolosa eta biok hain zuzen. Kontu hau zergatik ez zekien inork azaltzen dugu. Orain, paper batzuk desklassifikatu dituzte Ameriketara eta egia esateko moduan gaude.

Zer nolako ibilbidea izan du estreinakoz hirukote gisa landu duzuen antzezlana 2020ko ekainean estreinatu zenutenetik?

Lehenbiziko aldiz Nerea Gorritik parte hartuko du eta hirukotea izango gara. Taldea oso ondo osatzen du dituen musika dohainekin eta antzezle aparta da. Ni gitarrarekin eta Inaxioren haizezko instrumentuekin moldatzen ginen lehen eta orain berak pianoa sartu du, musika aldetik asko aberastu du. Gainerakoan, antzezlana hau beti gustura egiten dugu, ikuskizun honekin edonora joateko prest beti. Harrera oso ona izan du. Jendeak oso ondo pasatzen du.

Umorezko antzezlana bat da zuenena.

Jendeak gustuko du komedia. Dena dela, komediari ez diogu edukia kentzen. Sinestarrak diogu jendeari istorioa, jolas horretan sartzen ditugu ikus-entzuleak. Tarteka sartzen ditugu guk nahi ditugun ziriak edo aldarri txikiak umorearen bidez, gure purrustadaxoak botatzen ditugu. Ez da jolas hutsa, baditu bere gauzatxoak.

"KOMEDIA OSO AZKARRA DA, ARINA, ETA MUSIKAZ BLAI"

Aurrez Eliza Zaharrean emanaldia eskainitakoak zarete. Zer nolakoa iruditu zitzaizuen espazio hori?

Pare bat aldiz edo izango ginen. Leku oso polita da, oso bitxia. Gustatu zitzaigun asko leku hori. Gogoz goaz berriz.

Oraingoan, ikus-entzuleek zer ikusiko dute?

Komedia oso-oso azkarra, arina, musikaz blai. Oraingo eta aspaldiko abesti ezagunen bertsioak egiten ditugu, istoriora egokituz. Jendeak gogotik barre egingo du, di-da batean pasako zaio saioa.

Euskararen Eguna izaki, euskaratik eta euskaraz.

Bai, noski. Euskaratik idatzi eta pentsatzen dugu. Behin edo behin esan izan digute erdaraz zergatik ez dugun egiten. Guk idatzitakoek ez dute itzulpenik, euskararekin oso lotuak daude. Gustuko dugu, gainera, hitz jokoak egitea. Euskararen tripetatik idatzitakoa ez dago itzultzerik.

Euskararen Eguna Aginagan

Abenduak 2, larunbata

22:00 Euskararen Gala: Rafa Rueda, Norton (EH Sukarra), Mikel Markez, Idoia Torregarai, Yogerinha Borova, Antton Telleria, Mattin komikilaria, Ana Goitia, Axi eta Nerea (IZAN), Camel Walkers, Asier Kidam magoa.

Abenduak 3, igandea
18:00 Xentimorik Gabe taldearen "Gu primer!" antzezlana. Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Arraten.



Abenduaren 12a baino lehen eman beharko da izena. NOAUA

Urtea agurtzeko kantu-afaria

Urtea agurtzeko kantu-afaria antolatu du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak abenduaren 15ean, 20:30ean Patrienean.

Herritar orori irekia izango den otordurako izena abenduaren 12a baino lehen eman beharko da. Hitzordura kantu-liburuxka eramatea eskatu dute, ez duenari bertan emango zaio.

Afari osoan zehar, kantuan ariko direla iragarri dute. Horretarako, Asteazkenekoak kantu taldea izango dute bide-lagun afaltiarrek, "luxuzko lagunak, giro beroa eta xarman-ta bultzatuz". Aipatu moduan, Asteazkenekoak taldekoak Patrienera gonbidatu dituzte, "Etxalarko, Bankako eta Hazparneko lagunekin batera. Musikariak, akordeoi eta arrabita jole bikainak, gure ekimena atseginagoa egiten lagunduko dute", Kantu Taldeak iragarri dituzte.

Bertara joateko gonbita egin du Kantu Taldeak. "Kantuaz eta kontuaz gozatzeko aukera paregabea. Kantu zaharrak eta berriak abestuz Euskal Herriko historian barna murgilduko gara izan ditugun nahigabe,

gertaera, maitasun, pozak eta beste hainbat pasarteren testigu ditugun abestiekin".

Abenduak 15, ostirala

- 20:30 Kantu-afaria Patrienean.
- Gonbidatuak: Asteazkenekoak kantu taldea, akordeoi eta arrabita joleekin.
- Izen-ematea: 688 690 361 (Iban), abenduaren 12ra arte.
- Menua (25 euro):
 - Urdaiazpiko-kroketak.
 - Entsalada, gazta urdina eta intxaurrekin.
 - Etxean egindako porru eta ganben brick-a.
 - Bakailakoa bere saltsan patatekin.
 - Txekor sahieskia piper gorri eta patata frijituekin.
 - Laranja budina txokolate bero eta izozkiarekin.
 - Urteko ardoa, sagardoa, kafea, infusioa.
- Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.
- Laguntzaileak: Udala, NOAUA! K.E.

Dantza garaikidean trebatzeko deia

Talde berri bila dabilta dantza garaikideko taldean. Asteazkenero biltzen dira, 18:45-20:45 artean, momentuz Udarregi ikastolan. Eneko Gil dantzari profesionala da taldeko bideratzailea. "Taldea osateko beste hiruzpalau kide beharko genituzke", azpimarratu dute taldetik.

Izena emateko, idatzi whatsapp mezua 657 73 95 23 telefono zenbakira (Marta) eguerdietan, 13:30-14:30 artean, astelehenetik ostiralera. Sorkuntza, hainbat pautak emanda inprobisazioalantzen dute. Probatzeko deia egin dute, aurtengoan berriz ere osatu duten taldetik.

San Tomas azokarako deialdia

Azokaren baitan antolatzen diren babarrun zein sagardo lehiaketetan parte hartzeko asmoa dutenek, NOAUA!ko bulegora etorri beharko dute.

Babarrunaren kasuan, parte hartzaile bakoitzak kg1 babarrun aurkeztu behar du eta trukean 12 euro jasoko ditu.

Sagardogileen kasuan, parte hartzaile bakoitzak 8 botila aurkeztu beharko ditu eta botila bakoitzeko 1,5 euro pagatuko zaio.

Babarruna zein sagardoa ekartzeko, egun eta ordu hauek ahalbidetu ditugu:



Lehiaketetarako babarruna eta sagardoa aurretik ekarri behar da.

Abenduak 11, 12, 13

Ordutegia: Goizez, 8:00-13:00. Arratsaldez, 16:30-18:30.

Sendabelar ikastaroa Txokoalden

Txokoargi auzo elkarteak antolaturiko "Etxeko botikina prestatu" izeneko sendabelar ikastaroa abenduaren 1ean eta 15ean, 17:30-19:30 artean auzo elkarte horretako egoitzan.

Leire Lazkanok bideratuko ditu saioak. Izen-ematea aurretik egin behar da, 619 591 849 telefono zenbakira deituz



(ordutegi honetan hots egin: 16:00-18:00 artean). Asko jota 12 lagunentzako lekua egongo da. Prezioa, 20 euro.



·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

www.artzabaljabetxea.com 943 36 91 39

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321

publizitatea@noaua.eus



Azaroaren 30eko greba feminista orokorrarekin bat egingo dutela iragarri zuten Kafe Tertuliako kideek.

"Sistematikoa den indarkeria baten aurrean bizi gara"

"Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak!" izatea aldarrikatu zuten azaroaren 25ean Mikel Laboa plazan mobilizatu zirenek.

Emakumeenganako Indarkeria Matxista Ezabatzeko Eguna izan zen azaroaren 25ekoa. Euskal Herriko beste hainbat udalerrietan egin zuten moduan, Usurbilen ere mobilizazio eguna izan zen. Kafe Tertulia Usurbilgo Neska* Gazteen Talde Feministak elkarretaratzea deitu zuen eguerdian Mikel Laboa plazan. Pankartako aldarriak zioen moduan, "indarkeria matxistarik gabeko bizitzak!" aldarrikatu zituzten.

"Sistematikoa den indarkeria baten aurrean bizi gara", salatu zuten, amaieran plaza-raturiko adierazpenean. Horren aurrean, gogorarazi zuten, "autodefentsa feminista dugu lanerako, erantzuteko, pedagogiarako eta gure bizitzaren defentsa eraikitzeke erreminta!". Bide horretan sakontzen segitzeko asmoa agertu zuten. "Kaleak hartzeko prest

gaude eta ez gaitu inork geldituko, ez gaituzue geldituko", adierazi zuten.

Azaroaren 30eko greba orokorrarekin bat

Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza eskubide kolektiboaren alde azaroaren 30erako deitu duen greba feminista orokorrarekin bat egingo dutela iragarri zuten. "Bizitzak erdigunera ekarri eta azaroaren 30ean kaleak hartuko ditugu, zaintza publiko eta komunitario bat baitugu aldarrikatzeko".

Amaieran hastekoa zen kantu-jirako kideek ere bat egin zuten mobilizazioarekin eta guztiek batera abestuz eman zioten amaiera elkarretartzeari.

Honax Kafe Tertuliako kideek plazaratu zuten adierazpena bere osotasunean:

Azaroaren 25eko adierazpena

"Ez da ezer berria indarkeria matxistak hiltzen gaituela aldarrikatzea. Ohitu eta guzti egin gara eraiketa matxisten kasuak salatzea. Baina horiek ez dira kasu isolatuak, eta ezin dira eraso eta eraiketa datuekin soilik kontaktatu indarkeria matxistaren biktimak. Hiltzen

"AZAROAREN 30EAN KALEAK HARTUKO DITUGU, ZAINTZA PUBLIKO ETA KOMUNITARIO BAT BAITUGU ALDARRIKATZEKO"

KAFE TERTULIA

gaituena indarkeria matxista sostengatzen duen egiturazko sistema zisheteropatriarkal kapitalista bera da. Eta nazkatuta gaude!

Sistematikoa den indarkeria baten aurrean bizi gara, gure egunerokotasuna zeharkatzen duelarik. Zerrendatu genitzake bizi ditugun indarkeria instituzionalaren, pobretze estrukturalaren, gure gorputzenganako kontrolaren, kriminalizazioaren, bortxa sistematikoaren, sexu heziketa pornografikoaren eta eskubide faltan adibideak. Denok gara indarkeria matxistaren biktimak hamaika formetara.

Zorionez, feministok beste hamabi modu bilatu ditugu horiei aurre egiteko. Autodefentsa feminista da dugun tresna. Urteak daramatzagu autodefentsa feministaren baitan antolatzeke deia egiten eta honek har ditzakeen hamaika bide eta forma sortzen, aplikatzen eta aldarrikatzen. Horretarako bildu gara gaur ere.

Eta autodefentsa feministaren isla izango den data garrantzitsu bat gerturatzen ari zaigu. Egungo bizitzaren eta kapitalaren arteko talkan, gure bizitza eta gorputzak produktibitateko eta kapital metaketarako tresna izatea biolentzia da. Zaintzarako eskubide publiko bat ez izatea ere biolentzia da. Horregatik, bizitzak erdigunera ekarri eta azaroaren 30ean kaleak hartuko ditugu, zaintza publiko eta komunitario bat baitugu aldarrikatzeko.

Autodefentsa feminista dugu lanerako, erantzuteko, pedagogiarako eta gure bizitzaren defentsa eraikitzeke erreminta! Bide horretan jarraituko dugu; antolatzen, espazio kolektiboak sortzen, olatu feministak eragiten. Ezin daitekeelako uka feminismoak duen gaitasun politizatzailea eta sistema iraultzeko duen indarra. Kaleak hartzeko prest gaude eta ez gaitu inork geldituko, ez gaituzue geldituko.

Gora borroka feminista! Ekin autodefentsa feministari!"

Miriam Arrillaga Master Laboral Kutxako finalaurrekoan izango da

Miriam Arrillagak Nora Mendizabalen aurka jokatu zuen finalaurdenetako partida eta 22-12 nagusitu zen. Abenduaren 6an jokatu du finalurreko partida Abadiñon. Partida hau ETB1n eskainiko dute zuzenean.

Miriam Arrillaga eta Goiuri Zabaleta izango dira, hurrenez hurren, Leire Garai eta Amaia Aldairen arerioak abenduaren 6n Abadiñon jokatu diren Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxako finalerdietan, aurreko asteburuan Legutio eta Arratzuren artean jokatuak finalaurdenetako azken kanporaketetan Nora Mendizabal (22-12) eta Enara Gaminde (22-19) gailendu ondoren.

Emakume Master Cupeko kudeatzaileen esanetan, "maila geroz eta hobearrekin, garesti egon dira finalerdietako txartelak eta partida oso ikusgarriak espero dira finalerdietan, Durangoko final handiaren atarian".

Sei tanto egin zituen jarraian sakearekin

Larunbatekoa Legutio bi zati oso desberdin izan zituen partida izan zen. "Lehen erdi luzean, Nora Mendizabalek partida handia jokatu zuen, kantxan oso lasai zela partida guztiz dominatuz eta era guztietako dejadekin tanto ugari lortuz. Miriam Arrillagaren desesperaziorako, 11-3ko emaitzarekin aurreratu zen markagailuan".

Hala ere, buruzburuko lehiantan "sakeak ikaragarriko garrantzia du eta, lehen pilotakadarekin sei tanto egin zituen jarraian Arrillagak eta partida goitik-behera aldatu zen. Norgehiagokaren bigarren zatian paperak erabat aldatu ziren eta 2019ko txapelduna ia zuzenean joan zen 22. kartoira



Miriam Arrillaga eta Nora Mendizabal, finalaurdenetako partidaren hasieran.

eta Nora Mendizabal izan zen desesperatuta amaitu zuena", Master Cupekoek bidalitako kronikak dioenez.

Biharamunean, Arratzun jokatuak partida ez zen atzean geratu eta bi pilotariek erabat akituta amaitu zuten ordubete baino gehiago iraun zuen lehia gogor eta ikusgarrian. "Kasu honetan lehen erdia ezin orekatuagoa izan zen, denera bost berdinketa ere izan baitziren, sein, zarpina, zortzina, bederatzina eta hamarna. Bi parteko ederrekin amaitutako zenbait tantorekin, lortu zuen Goiuri Zabaletak bost tantotako zulo bat irekitzea eta alde hori kudeatzen asmatu zuen, nahiz eta Enara Gamindek gauzak oso oso zail jarri zizkion azken-azken txanparaino".

Asteburua erabat bete izan zen. Pilota mistoko eliteko bi kanporaketa huez gain, beste mailako hamaika partida ere jokatu ziren "pilotalekue-tan bildu ziren zaleen gozamenarako".

Finalurrekoa, Abadiñon

Miriam Arrillagak abenduaren 6an jokatu du finalurreko partida. Abadiñon izango da norgehiagoka, eta Aldai pilotaria gainditu beharko du final handirako txartela eskuratu nahi badu. ETB1n eskainiko dute finala.

Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxa

Finalurrekoak:

Eguna: Abenduak 6.
Ordua: 12:00.

Tokia: Abadiñoko frontoian:

- Garai-Zabaleta.
- Arrillaga-Aldai.

Finala:

Eguna: Abenduak 17.
Ordua: 12:00.

Tokia: Durango-Ezkurdia.

Futbol partidak

Abenduak 2, larunbata

Harane futbol zelaian:

- 09:00 Infantil mutilak:

-Usurbil FT B

-Santo Tomas Lizeoa B

- 10:30 Infantil neskak:

-Usurbil FT

-Santo Tomas Lizeoa KE

- 12:00 Kadete mutilak:

-Usurbil FT

-Urnieta CD B

- 15:30 Preferente neskak:

-Usurbil FT

-Irauli Bosteko KK

- 17:45 Preferente mutilak:

Usurbil FT-Urnieta CD

Abenduak 3, igandea

Harane futbol zelaian

- 10:00 Kadete neskak: Usurbil FT B-Gure Txokoa KKE

- 12:00 Jubenilak: Usurbil FT B-Arrupe Chaminade DF D

- 15:30 Erregionalak: Usurbil FT B-Idiazabal KE

- 17:45 Preferente jubenilak:

-Usurbil FT

-Kosktas Mariaren Bihotza B

Eskubaloi partidak

Abenduak 2, larunbata

Oiardon:

- 10:00 Infantil neskak:

Usurbil KE B-Bergara.

- 17:30 Senior neskak:

Urbil Usurbil KE-Saieko.

- 19:30 Senior mutilak:

-Saizar Usurbil KE.

-Txikipolit Zarautz.

Azaroko zozketan saritutako

zenbakia: 0920.

Saria Artzabal jatetxean 2 lagunentzako menua.

Bolei partida

Abenduak 2, larunbata

Oiardon, 13:00:

-Udarregi.

-Salbatore Mitxelena.

Euskararen Egunari lotutako ekimen ugari iragarri dira

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, zenbait ekimen iragarri dira egunotarako.

Abenduak 1, ostirala Euskararen Eguna Udarregi ikastolan

LHn

- Goizean zehar: dantza gunea Askatasuna plazan, pankartak egiteko gunea Sagardo plazan, sokasaltoan aritu euskaraz abestuz Mikel Laboa plazan, saski-lokotxjolas kooperatiboa frontoian eta buruhandiak udaletxeko plazan.
- 12:00ak aldera, euskarari gorazarre eginez, LHko ikasleen kantaldia Mikel Laboa plazan.
- Arratsaldean: Zinea euskaraz, pelikula ikustaldiak.

DBHn

- Askotariko jarduerak: karaokea, euskarazko hitzik politena aukeratu, manifestua denon artean irakurri...
- Euskaraz bizi taldekoekin Euskararen Erronka.
- Bertso-saioa. Gai-jartzaile "Euskaraz bizi" taldeko kideak. Antolatzailea: Udarregi ikastola.

Abenduak 2, larunbata Aginagan

- 22:00 Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharrean. Zehaztasunak: aurkezleek gidatuta: bakarriketak, musikariak, magoa, zirkua, dantza eta askoz gehiago! Rafa Rueda, Norton (EH Sukarra), Mikel Markez, Idoia Torregerai, Yogurina Borova, Antton Telleria,

Mattin komikilaria, Ana Goitia, Axi eta Nerea (IZAN), Camel Walkers eta Asier Kidam Magoa".

- Sarrerak: 12 euro usurbil-kultura.eus webgunean eta Arrate Tabernan.
- Antolatzaileak: Eliza Zaharra elkargunea eta Antxomolantxa. Laguntzailea: Udala.

Abenduak 3, igandea Aginagan

- 18:00 Xentimorik gabe taldekoen "Gu primer" antzez-lana Aginagako Eliza Zaharrean.
- Artistak: Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti.
- Testua: Egoitz Lasa eta Ramon Agirre.
- Zuzendaria: Asier Sota. Zehaztasunak: "Inazio eta Ramon "Parisen" bizi dira, Artistaren Etxean. Bertan lanean hasi berri den Nereak, "programa" bat prestatu du gure bi lagunentzat: Kontzertu sorta eskainiko dute non bere errepertorio eta bizipenak kantu-kontatuko baitituzte. Gaurkoan balentria handi baten berri emango dute; Ez amerikarrak, ez errusiarrak, bi euskaldun izan ziren ilar-gira iristen lehenak. Gu primer!".
- Antolatzaileak: San Praixku Guraso Elkarte eta Antxomolantxa.
- Laguntzailea: Udala.



Agurne Gaubeka Behatokiko zuzendaria Usurbilen izango da abenduaren 5ean.

Abenduak 5, asteartea Usurbilgo Potxoenean

- 18:00 "Bizi gaitezke euskaraz?" gogoeta-saioa Potxoenean, Behatokiko zuzendari Agurne Gaubekarekin. Zehaztasunak: Azken aldiko epaiek ezbaian jarri dute euskararen normalizazio-prozesua. "Zertan gara? Zertan dute eragina sententziok? Aurrerantzean, zer?". Horien tankerako galderak erantzuten saiatuko gara Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzenda-

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIKO ZUZENDARIAK HITZALDIA ESKAINIKO DU ABENDUAREN 5EAN POTXOENEAN

riarekin. Saioak gaia kokatzen laguntzea du xede, eta Usurbilgo Euskara Aholku Batzordea berraktibatzea, gure hizkuntza hauspotzeko gaokoak helburu". Antolatzailea: Usurbilgo Euskara Aholku Batzordea.

Abenduak 10, igandea, Usurbilgo Sutegin

- 17:00 Neguko euskarazko zinezikloa haurrentzat: "Abentura erraldoia" filmaren proiektzioa Sutegiko auditorioan. Sinopsia: "Sebastian, Sophia eta Wawa txikien istorioa kontatzen du "Abentura erraldoia" filmak. Ustekabeko eta aparteko bidaiari ekingo diote, Nazca kulturaren oinarritutako mundu ezezagunera eramango dituen".
- Sarrera: 3 eurotan eskuratu ahaliko dira aurrez, usurbil-kultura.eus plataforman.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza gazte elkar-tea.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil


ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91


 943 361182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

SALGAI

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko herriaren erdialdean. Interesik izanez gero, idatzi 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordu-tegian malgutasuna. 688805307.

BESTELAKOAK

Azaroak 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzainetan utzi ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-inkarria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 30	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 02	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 03	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 04	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteartea, 05	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 06	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 07	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 08	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 09	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 10	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZUPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Txipiron, maite zaitut!

Gaurkoa oso egun berezia da. Ondo pasa ta ondo ospatu zure urtebetetzea.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 30

USURBIL Greba feminista orokorra

Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba feminista orokorra deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak.

LARUNBATA 02

AGINAGA Euskararen Eguna: Euskararen Gala

Bakarrizketak, musikariak, magoa, zirkua, dantza... Aginagako Eliza Zaharrea. Sarrera: 12 euro, Arrate tabernan eta usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea. 22:00etan Aginagako Eliza Zaharrea.

IGANDEA 03

AGINAGA Euskararen Eguna: "Gu Primer!" antzezlan

Aktoreak: Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti. Sarrerak Arrate tabernan eta usurbilkultura.eus atarian. 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrea.

USURBIL Hurbilagoren 'Udazkeneko Azoka'

Salmenta postuak, tailerrak, sagardoa, gaztainak... Antolatzailea: Hurbilago. Eguerdian, frontoian.



Inazio Tolosa, Ramon Agirre eta Nerea Gorriti, antzezlaneko protagonistak.

Igandean, 'Gu primer!' antzezlan

Inazio Tolosa eta Ramon Agirre 'Parisen' bizi dira, Artistaren Etxean. Bertan lanean hasi berri den Nerea Gorritik, 'programa' bat prestatu du bi laguntzat: Kontzertu sorta eskainiko dute non bere erreperitorio eta bizipenak kantu eta kontatuko dituzten.

Aginagako Eliza Zaharreko saioan, balentria handi baten berri emango dute; ez ameri-

karrak, ez errusiarrak, bi euskaldun izan ziren ilargira iristen lehenak. Hortik antzezlanaren izenburua, "Gu primer!".

Abenduak 3 igandea, 18:00

- Sarrerak Arrate tabernan eta usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzaileak: San Praixku Guraso Elkarte eta Antxomolantxa.
- Laguntzailea: Udala.

Mikel Laboa gogoan

Abenduaren lehenean, 15 urte beteko dira Mikel Laboa kantari donostiarra zendu zenetik. Bere musika entzungai izango dugu egun horretan zehar bere izena daraman plazan. Oroimen mezuak ere idatzi ahal izango dira liburutegiko erregistro liburuan.

Orbeldikoen emanaldia Sutegin

Abenduaren 16an Orbeldi Dantza Taldekoak Sutegin oholtagainera igoko dira, azkenaldian landu duten ikuskizuna plazaratzera; "Bihotz dantza begietan".

Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta emanaldirako sarrera doakoa izango da.



Ikuskizun berria aurkeztuko dute Sutegin.

Barreterapia Santuenean

Santuenea Auzo Elkarteak antolaturiko barreterapia tailerra abenduaren 16an, goizeko 10:30ean hasita Santueneko ludoetean.

Izena aurrez eman beharko da santueneaguretxikiak@gmail.com e-posta helbidera idatzita. Preziosa, 10 euro.

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

MARCELO ATEAK



AURREKONTUA
ESKATU!!

·ATEAK ·ARMAIRUAK ·PARKET
·BINILOAK ·TARIMAK ·ZOKALOAK

USURBIL 609 47 36 79

Antxeta

TABERNA-JATETXEA



Askotariko frijituak
Antxeta entsalada
Piper beteak
Arrain zopa
Barazkiak tenpuran

antxeta
ASTEBURUKO
MENU BERRIA!

18€
(BEZ. BARRNE)

Arkume txuletak
Txahal-biribila
Txipirotiak
Bakaioa
Saiheskia

Jogurt moussea / Pantxineta
Arroz esnea / Flana
Txokolatezko coulant-a
(edaria eta kafea menutik kanpo)

egunero irekitzen dugu!

·eguneko menua (astegunetan) ·asteburuko menua

·ogitartekoak, pintxoak, razioak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



2 saski zozketatuko ditugu

Saski bat 2023an zehar
publia jarri dutenen artean
eta beste bat
NOAUA!ko bazkideen artean.



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

UDAZKENEKO
AZOKA

ABENDUAK 3, 11:00 - 14:30
Usurbilgo Frontoian

11:30 - 14:30 AZOKA

Lizardi Liburudenda • **lone Iruretagoiena** • Ama eta biok • Amesgile Argitaletxea
Bihurri • Ciaobellaido • Crea • Garoa Elkartea • Gigil Design • Izan Inurri • Jukima
Knot • Koloreztatu • Kool Studio • Ni Naiz • Osabi • Pott Keramika • Tilin talan • Urluma

11:30-14:30 PULTSERA TAILERRA

Ziortza Gazte Elkartearen eskutik

12:00 IPUIN KONTAKETA

Amesgile Argitaletxearen ipuin kontaketa

13:00 650 USURBIL BIZI

Usurbilgo ekoizleen produktuekin osatutako gabonetako otarra

**GAZTAINAK ETA
SAGARDOA DOAN
(azokan erosketa
bat eginda)**

